

1. Atala

HIRU ERREKA

- Txikiak izanagatik ere herri guztiek dute beren historia eta gureak ere badu berea.
- Baina aizu Jone! Iurreta ez da Durango bezain ezaguna! – Kexatu zen Aritz.
- Ezta izango ere seguraski – erantzun zion Jonek bere neba txikiari. – Baina horrek ez du esan nahi ez dugunik zer kontatu, eta belarriak adi eta begiak erne baditugu bizi garen herria hobeto ezagutuko dugu bion artean.

Horrela hasi zuten Jone eta Aritzek beren bidaia, abenturaz eta ezustekoz betetako bidaia. Izan ere, batzuetan, gauza txikietan arreta jartzean deskubritzen ditugu sekretu handi eta ederrenak.

- Badakizu Aritz! Inguru hau beti izan da garrantzitsua merkataritzarako. Hemendik igarotzen ziren bideek batzen zuten lehen Gaztela aldeko goi lautada Kantauri itsasoarekin eta baita Bilbo ingurua Gipuzkoarekin ere.

ARIKETA:

- Lagunduko diozu Aritzi hiru erreka horien izenak asmatzen?
- Zer leku gehiago ezagutzen duzu marrazkian?

- Aizu Jone! Eta zergatik da Iurreta? Nondik dator izena?
- “Hiru erreka” batzen diren lekua delako omen da.
- Hiru?
- Bai... Asmatuko al zenuke zeintzuk diren esaten?

Neba-arrebak han gelditu ziren ibai zabal baten ertzean, inguru hartan herriak sortu aurreko paisaia bati begira, toki ezagunen izenak asmatu nahian.

